

## PSOE eta autonomiaren bi posibilitate

*Deia*, 1977-08-11.

Gure herriak berehala behar du Autonomia bat.

Baina, nolakoa?

Gauza bat da, jakina, guk Euzkadi-rentzat nahi genuen eta lortu behar dugun berjabetasun osoa, eta beste bat guk gaur lor genezakeena.

Eta gauza bat baino gehiago ba dira gaur kezkarri direnak.

Lehenengo mailan, *Nafarroa*, eta gero *PSOE*-k gai hontaz duen jokabidea.

*Nafarroa* gai dela, bi bide nagusietatik bat hartu beharko da: *Nafarroa* barruan dela sortzeko guk onartu behar izango dugun behe-mailako Estatuto bat, eta, bestela, *Nafarroa* gero sartzeko atea irekita utziaz beste hiru herrialdeek 1936-en lortutakotik gorako bat borrokatzeko bidean jarri.

Bide bat edo bestea hartzeko, borroka handiak egin beharko dira; baina borroka hasi aurretik ondo aztertu beharko dira bi posibilitateak, eta bata eta besteak onerako eta kalterako ekarriko lituzketen ondorioak.

*PSOE* gai dela, ba dira jakingarri diren asmo batzu:

Jakina da *PSOE* autonomi baten ikurrinarekin joan dela hauteskundeetara. Oraindik ere hau aitortzen du hemen, *Madrid*-en hainbestekorik esaten ez badu ere. Baina goazen hemengoarekin: Autonomi-fronte batean elkartuta joan badira ere, *PSOE*-koak ez dira hauteskundeetara elkarrekin joan direnekin hontarako gertu diren batzarretara agertu. Hau, *Xabier Arzalluz*-ek argi asko azaldu du hemen argitaratu dugun elkar-hizketa batean.

Beste aldetik, garbi ageri da *PSOE*-k bere aldetik Autonomiaz hartu duen protagonismoa: hemengo talde abertzale edo autonomistekin hartu-emanik izan gabe, *Lehendakari Leizaola*-rekin hitzegitera joan da zuzenean.

Hemen argitzen joan behar dute gai batzu:

*PSOE*-k, *Lehendakari Leizaola*-rekin hartu-emanetan berez eta bakarrik hasteak, gutxienez zera esan nahi du, Autonomiaren protagonismoa hoiek hartu nahi dutela; hau, Euzkadi-n abertzale diren beste alderdi guzien bizkar egitea ausartegia iruditzen zait; bata, herrikoitasuna nabarmenki alderdi abertzaleen ispirituan dagoelako, eta abertzale diren talde hoiek elkarturik Euzkadin *PSOE* baino askoz ere gehiago direlako.

Hemen egin behar zena, eta oraindik egin behar litzatekena, zera da: *Nafarroa*-ko arazoa denen artean, *PSOE* barruan dela, ondo aztertu, eta gero, gehien komeni dena, edo ondoen egin daitekeena, denok batera egin.

Bestela, laster ditugu *PSOE*-kin istilu larriak, eta ez da jakitun edo igarle izan behar gure herrian *PSOE*-k ez duela abertzaleekin borrokan hasten bada uste duen indarrik izango.

Joan den hauteskundeekin puztu egin da, gehiegi.

Puztu bezala hustu liteke.

Nolanahi garaia da guk, abertzaleok, gertaera honen aurrean jarri behar dugun aurpegia eta indarra erakusteko.